noaua



AIMAR IRAETA: "TXIKITAKO AMETSA BETE DUT"

Bidasoa eskubaloi taldearekin maila gorenean debutatu du usurbildar gazteak (argazkian, erdikoa) / 07 or.

ARGAZKIA: NOAUA



DOCTORALIA

Emakumeak eta kirola izango dira Naroa Mirallesen hitzaldiko hizpide nagusiak / 06



NOAUA

Iñaki Larrañagak kanta propioz osaturiko lehen CDa plazaratu du / 08



BURUNTZALDEKO UDALAK

Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna igande honetan ospatuko da / 16



BERTSOZALE ELKARTEA

Asier Azpiroz bertsolari zubietarra finalaurrekoetarako sailkatu da / 17



NOAOA BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 · info@noaoa.eus · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO, URRUTIKO ETA GERTUKO BIGARREN LENTE PAREA DOAN!



943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

650 USURBIL bizi
Usurbil Turismoa

noaua

LAN DEIALDIA - TURISMO DINAMIZATZAILEA

650 Usurbil Bizirik turismo dinamizatzailearen bila gabiltza.

Noaua! K.E.-n lanaldi erdiko kontratua eskaintzen da (2 hilabeteko frogaldia).

Betebeharrak:

• Diplomatura edo gradu baten jabe izatea. Turismo, Kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturarekin lotutakoak (erlazionatutako masterra edo postgradua ere onartuko dira)

edo

• Beste diplomatura baten jabe izanik, prestakuntza osagarria edo esperientzia izatea kultura, ondarea eta turismo alorrean.

• EGA edo baliokidea izatea.

Baloratuko dira:

• Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna. • Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeko gaitasuna izatea. • Kanpoko hizkuntzak jakitea. · Herrigintza esperientzia izatea. • Turismo alorrean esperientzia izatea. • Webguneak eta sare sozialen kudeaketan ezagutza izatea.

Interesatuak bidali curriculuma elkartea@noaua.eus helbidera 2026ko urriak 17 baino lehen. Informazio gehiago:

Greba deialdiarekin bat egin zuten udal langileek

Udaberriaz geroztik abian duten borrokaren baitan, greba egin zuten urriaren 8an Usurbilgo udal langileek, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste hainbat udalerrietakoekin batera. Aldez aurretik, greba horri begirako bilkura eta bozketa egin zuten langileek. Greba deialdiarekin bat egitea erabaki zuten. Ondorioz, hilaren 8an, udal-ekipamenduak itxita izan ziren. Garbitaniako langileek ere greba egin zuten.



"EAEko udaletan urte asko daramagu lan-baldintzak hobetuko dituen akordiorik gabe", udal langileek aditzera eman dutenez.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Zubietatik Aginagara lekuz aldatuko dute garbigune mugikorra urriaren 15ean eta bertan izango dute hilaren 21era arte. Biharamunean, Txokoaldera eramango dute udal zerbitzua.

Errefus bilketari dagokionez, hurrengo hitzordua urriaren 25a izango da.

1955ean jaiotakoak Patrin batuko dira urriaren 24an

"Aurten ere, 1955. urtean jaioak urriaren 24an biltzeko aukera izango dugu. Egun horretan Patrin elkartuko gara. Izena eman, urriaren 17rako,telefono edo whatsapp bidez":

- 675 00 64 45 Maribi
- 615 76 04 58 Patxi
- E-maila: 1955usurbil@gmail.com

1969koak azaroaren 7an batuko dira Mahaspildegin

Mahaspildegin batuko dira, 12:00etan. Bazkaria ordea 14:30ean izango da, Artzabalen. 50 euroko ordainketa egin beharko da: ES32 3008 0259 1547 7191 6121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan, erreferentzia zehazterakoan, 69 eta izena idatzi. Izena emateko azken eguna, azaroaren 3a.

1966an jaiotakoen topaketa, urriaren 31n

Bazkaritarako bilduko dira Saizarren. Bazkalaurretik ordea, trikipoteoa iragarri dute. Izena emateko 66 euroko ordainketa egin beharko da, nork bere izen-abizenak adieraziz, urriaren 15a baino lehen, kontu zenbaki honetan: ES54 2095 5069 0091 2749 4577 (Kutxabank).

noaua TOKIKOM
PEFC FSC

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Kudeatzailea: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea: Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea: Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Usurbilgo Udala

BIKAIN
EUSKARAREN KALITATE-ZIURTAGIRIA

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROTZ EIZMENDI

Pasahitza ahaztu al zaizu?

Pasahitza ahaztu al zaizu? Pasahitza ahaztu duzu? Zure erabiltzailea, gakoa ahaztu duzu edo blokeatuta dago? Bai, jakina. Nola ez, ba.

Akaso batzuei ez zaizue ahaztuko, baina niri bai. Gero eta leku gehiagotan eskatzen digute kontua sortzeko eta pasahitza jartzeko. Kontua sortzen dugu, pasahitza jartzen diogu eta egiten dugu egin beharrekoa. Baina hurrena, ez dakit zenbat aste edo hilabete pasa ondoren, berriro kontu horretan sartzen hasten gara eta… ai! Zein zen pasahitza?

Behin baino gehiagotan gertatu zait usurbilkultura.eus-en. Kontua sortuta daukat eta tarteka sarrerak edo gonbidapenak hartzeko erabiltzen dut. Tarteka. Eta pasahitza eskatutakoan… urduri jartzen hasten naiz. Lehenengoan asmatuz gero, lasaitu ederra. Asmatzen ez badut, bigarren saiakera. Eta bestela, "pasahitza ahaztu zait"era jo behar.

Udalarenean okerragoa da; urduri ez, izerditan jartzen naiz. Egoitza elektronikora sartzeko BakQa eskatzen dit. Horretarako tramiteak eginak dauzkat –izerditan baita ere– eta pasahitza berreskuratu behar izaten dut. Oso tarteka erabiltzen dudanez, prozedura guztia bergogoratu behar izaten dut.

Osakidetzako karpetan ere BakQa eskatzen dute. Udaleko tramitearen jarraian eginez gero, erraza da gogoratzeko. Baina beste momentu batean eginez gero –eta gehienetan hala izaten da– berriz ere ahaztuta.



"Aspaldi ez naiz sartu kontu honetan eta… bai, pasahitza ahaztu zait".

Gertuagoko bonuak eskatzeko garaian ere, a ze komeriak. Pasahitza? Auskalo! Noiz sartu nintzen azkeneko aldiz kontu honetara? Nola gogoratuko naiz, ba?

Ikastolan Inika aplikazio berria jarri digute eta horretarako ere pasahitz berria jarri behar: berria, beste kontu batzuetan erabiltzen ez dena, segurtasun maila altua duena hobe, maiuskula bat, minuskula bat, zenbaki bat, ikur bat…

Hau eromena da! Ikerketek erakusten dute pasahitzak ahaztea edo gogoratzeko zailtasunak izatea ohikoa dela. Zenbat eta pasahitz gehiago erabili, ahazteko edo elkarren artean nahasteko joera handiagoa omen da. Izan ere, pasahitz seguruak sortzeko ematen dituzten gomendioek ez dute laguntzen erraz gogoratzea. Gomendioei jarraituz, xehetasun zehatzak gogoratu behar ditugu eta ikerketek diote oroitzapen horiek denboraren poderioz azkar ahultzen direla eta beste oroitzapen batzuen interferentziaren eraginpean egoten direla. Alegia, erraz ahaztu edo nahastu ditzakegula.

Ba omen daude pasahitzak sortzeko trikimailuak, ez ahazteko eguneroko ohiturak, pasahitz-kudeatzaileak… Zeozer egin beharko da. Zeren hau gure 16 abizenak gogoratzea baino konplikatuagoa bihurtzen ari da.

"ZENBAT ETA PASAHITZ GEHIAGO ERABILI, AHAZTEKO EDO ELKARREN ARTEAN NAHASTEKO JOERA HANDIAGOA OMEN DA"

1972. urtean jaiotakoen bazkaria, azaroaren 7an

Azaroaren 7an Zubietako Iruin sagardotegian batuko dira, eguerdiko 14:30ean. Otordurako izena urriaren 31 baino lehen eman beharko da. 50 euroko ordainketa egin beharko da: ES41 2095 5048 1091 2804 0123 (Kutxabank). Ordainketa egiterakoan, nork bere izen-abizenak adierazi beharko ditu.

1959an jaiotakoen topaketa urriaren 31n izango da

Urriaren 31rako antolatu dute bazkaria Artzabal jatetxean. 13:00ean geratu dira bazkalaurreko poteorako. Otordurako izena telefono zenbaki honetara deituta eman daiteke: 659 13 90 73.

Medikuen greba mugagabea atzeratu egin dute

Azaroaren 29ko hauteskundeak tarteko, medikuen sindikatuek estatutu propioa aldarrikatzeko urriaren 28an hastekoa zuten greba mugagabea atzeratzea erabaki dute.

Bestalde, Osakidetzako langileen lan-baldintzak hobetzeko SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek udazken honetarako deitutako bost greba egunetan lehenengoa urriaren 30erako dute iragarri Osakidetza osoan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patri
Patrienea Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

Mobilizazioak, greba orokorrera begira

Etxebizitza eskubide duinaren alde azaroaren 11rako deitutako greba orokorrarekin bat egin dute baita euskal sindikatuek.



Buruntzaldeko Ernaik elkarretaratzea egin zuen lehengo astean, Lasarte-Orian.

LAB, ELA, ESK edo STEILAS-ek deialdi horren premiazkoatsuna nabarmendu dute, hori bai, Euskal Herriko "errealitate sozial, politiko eta sindikal propiotik" erantzunda.

Ernairen elkarretaratzea

Etxebizitza duina izateko eskubidearen aldeko aldarria bizi asko dago egunotan. Horien artean da Ernai gazte antolakundeak iragan aste hasieran, Lasarte-Oriako Okendo plazan egindako eskualde mailako elkarretaratzea, "etxebizitza duinaren alde. Urrats bat aurrera" aldarripean.

Azaroaren 29ko hauteskunde deialdia tarteko, PP eta VOX alderdiak Espainiako Gobernura agintzera hel daitezkeen honetan, protesta ekintza hauek "etxebizitza duinaren aldeko borrokan ekarpena egiteko ez ezik, ultraeskuinaren aurkako erantzun gisa aurkeztea funtsezkoa iruditzen zaigu". Ernairen esanetan, bi gaiak lotuta daude. "Izan ere, oinarrizko eskubidea beharko lukeena negoziorako bitarteko bihurtu dute. Horrela, funts putreak eta enpresari handiak aberastu daitezen, gu geroz eta pobreagoak gara". Horregatik, gazte antolakundearen esanetan, "egoera horrek, orain arteko ereduarekin moztea eta sakoneko aldaketa bat martxan jartzea eskatzen du". PP-VOXek "arazoa pertsona migratuetan kokatu nahi izan du nagusiki eta horrekin batera, manifestarien zuzeneko kriminalizazioa bultzatu dute. Izan ere, haiei bost axola zaizkie herritarron oinarrizko beharrizanak, haiek kapitalista handien morroi dira".

Mehatxu horrek Euskal Herrian hartutako dimentsio bikoitzaz ohartarazi du Ernaik. "Espainiar faxistak Espainiako banderak eskuetan datoz, Euskal Herria bera, gure hizkuntza eta gure askatasun nahia jazartzeko". Horren aurrean, "argi esan nahi dugu, ez dira pasako, ez duzue lortuko. Hemen badago, duintasunez eta askatasunez bizi nahi duen herri bat".

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Ondo zaindua (1985 inguru)

Urteak eta pisua medio, belaunak baldartuta eta arintasuna erabat galduta, etxetik oso gutxi ateratzen da gure Agustina. Aspaldi ikusi ez, eta bisitara joan zaio lagun bat. Bisita egin ondoren, despeditzerakoan, hala dio lagunak haren gizonari:

-Eta? Ondo zaintzen al duk Agustina?

-Gizonak: *Zaindu? Ikusi besterik ez zegok: 50 kilo zituela hartu nian eta begiraiok orain!*



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



"Ez nuke esango kirola aisialdia izatetik helburu estetiko hutsa izatera igaro denik", azaldu digu Naroa Mirallesek.

"Uneoro presio eta mezu ezberdinak jasotzen ari gara"

NAROA MIRALLES OSASUN PSIKOLOGOA

"Emakumea, gorputz-irudia eta kirola: presioetatik ongizatera" hitzaldia iragarri du Emakumeen Etxeak urriaren 23rako, 18:00etan hasita. Naroa Miralles osasun psikologoa izango da hizlaria.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Emakumea, gorputz-irudia eta kirola: presioetatik ongizatera" hitzaldian zertaz hitz egingo duzu?

Batez ere, emakumeok gure gorputzarekin eta kirolarekin dugun harremanaz hitz egingo dugu. Jarduera fisikoaz gozatzeko, besteekin elkartzeko eta gure ongizatea zaintzeko aukera izan daiteke. Baina harreman horretan, presio estetikoek, konparazioek eta autoexijentziak ere eragina izan dezakete.

"Teoriaz" beteriko hitzaldi soil bat izan baino, hausnarketarako espazio goxo bat eskaintzea gustatuko litzaidake, gure burua gehiago ulertu eta gure gorputzarekin nondik harremantzen garen ulertzera iristeko; noski, norberaren errukitasunetik.

Hitzaldiaren helburua gure beharrak hobeto entzutea eta kirolarekin harreman atseginagoa eta malguagoa eraikitzeko bideak ezagutzea izango da.

"GAUR EGUN, TAMALEZ, MUTURREKO ARGALTASUNA OSO PRESENTE DAGO UNE ORO"

Nola aldatu da kirolarekiko ikuspuntua? Aisialdiko jarduera izatetik gorputz estandar batzuk moldatzeko ekintzan bihurtu da akaso?

Ez nuke esango aisialdiko jarduera izatetik helburu estetiko hutsa izatera igaro denik. Azken batean, kirola egiteko arrazoiak askotarikoak dira,

"ERAGIN-SORTZAILEEN ERAGINAK HAINBAT JOKAERA NORMALIZATZERA ERAMAN GAITU"

eta pertsona berean ere hainbat motibazio elkarrekin egon daitezke: gozatzea, osasuna zaintzea, lagunekin egotea, erronkak gainditzea edo itxura aldatzea. Baina presio estetiko hori ukatzea ezinezkoa da. Gaur egun, tamalez, oraindik ere, "dietaren kultura" eta muturreko argaltasuna oso presente daude une oro bai sare sozialetan, gaur egun haur eta nerabeentzat eredu diren eragin-sortzaile horietan, filmetan... Horrek guztiak, noski, arreta eta fokua gorputzaren itxuran jartzera eraman gaitzake, mugimenduak ematen digun esperientzian eta onuran baino. Azken batean, horrek guztiak emakumeon autoestimuan, kanpo balioztatzean, auto-kontzeptuan, harremanetan, autoirudian, plan sozialetan, bizitza bizitzeko moduan, berebiziko eragina izan dezake.

Zein dira aipatzen diren presio horiek?

Aurreko erantzunarekin jarraituz, azkenean, gure egunerokoan, askotan inongo kontzientziarik gabe eta zeharka (hori guztia erabat normalizatu baitugu), une oro presio eta mezu ezberdinak jasotzen ari gara, geratu gabe.

Alde batetik, presio estetikoa izango genuke, lehen aipatutako "dietaren kultura", muturreko argaltasuna, gorputz "normatibo" horiek jarraitu beharra...

Bestetik, errendimenduaren presioa ere badugu: gero eta gehiago egin beharra, markak hobetzea eta beti aurrera egitea, atsedena edota erritmoa jaistea, gaur egun, ez baita aukera bat. Gaur egun, kirola egitea ere moda bihurtu denaren sentsazioa ere badut eta eragin-sortzaileen indarrak eta eraginak, hainbat jokaera normalizatzera eraman gaitu. Emakumeon kasuan, gainera, lehen aipatu dudan moduan, "emakumeen eskakizun" horiekin ere bete behar dugu.



Urriaren 3an jokatu zuen maila goreneko lehen partida Bidasoarekin, eta gol bat sartu zuen. BIDASOA

"Espero dut hau hasiera besterik ez izatea"

AIMAR IRAETA BIDASOA ESKUBALOI TALDEKO JOKALARIA

Usurbildarrak dagoeneko egin du debuta Bidasoa eskubaloi taldearekin lehen mailan. Minutu gutxi jolastu zituen arren, gola sartzea lortu zuen eta "amets bat" egi bihurtzea lortu du.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

Urriaren 3an egin zenuen debuta Bidasoa eskubaloi taldearekin, eta gola sartu zenuen gainera. Nola daramazu hori?

Txikitatik izan dudan amets bat da Bidasoarekin jokatzea, eta ezustean, larunbat horretan bete zen. Poztasun handiz hartu nuen. Egia da, urte osoan zehar, lehen taldearekin entrenatzen aritu naizela, baita denboraldiaurrean ere. Hala ere, ez zegoen nire planetan haiekin debuta egitea. Aukera izan da, eta aprobetxatu beharra zegoen.

Lehia handia dela esan duzu. Lehen taldearekin jokatzeko ametsa zapuzten du horrek?

Ez, nik ez dut horrela ikusten. Lehia horrek niri jokalari gisa gehiago lagundu eta hobetuko nau, hala iruditzen zait.

Ni oraindik oso gaztea naizenez, ez dago presarik pauso hori emateko, eta azken finean, formakuntza prozesu batean egonda, lehenengo taldean sartzea ez da onena.

"FURUNENGATIK IZAN EZ BALITZ, AGIAN, ORAINDIK TALDEAN INTEGRATZEN EGONGO NINTZEN"

Hortaz, entrenamenduetan eta haiek erakusten didatenarekin jokalari hobea egingo naiz, eta beste leku batzuetan erakusten dudanak, aurrerago bere fruituak eman ditzake.

Nolakoak izan ziren zure hastapenak eskubaloian?

"AURKARITZA HORREK, NIRI, JOKALARI GISA GEHIAGO LAGUNDUKO DIDALA USTE DUT"

Ni eskubaloian alebinetan hasi nintzela uste dut. Nire anaiak eskubaloian jolasten zuen. Eskubaloia, Usurbilen kirol famatuena edo esanguratsuena dela esango nuke.

Bestalde, nire aitona urte luzez ibili da eskubaloi munduan epaile eta entrenatzaile gisa, eta orduan, eskubaloian sartu nintzen. Probatu nuen eta gustatzen zitzaidala konturatu nintzen. Gainera, lagunekin ere ondo pasatzen nuen, eta aurrera egin nuen.

Eta Bidasoan hasteko urrats hori noiz eman zenuen?

Kadete mailan Euskal Selekzioarekin aritzen nintzen, eta azken urtean, Bidasoatik hots egin ninduten. Pentsatu gabe baiezkoa eman nien. Azken finean, nire ametsa zen Bidasoan jokatzea, eta horren aldeko apustua egin nuen.

Nolakoa izan da lehen talderako salto hori?

Dena duela bi urte hasi zen, iritsi nintzenean. Urtarrilean Europako edo Munduko txapelketa izaten da, eta jende asko haien selekzioarekin joaten da. Pibote postuan inor ez zuten eta ni jubenilen lehenengo mailakoa izanik, urtarrilean zehar entrenatzera joan nintzen. Iaz, denboraldiaurrea haiekin egin nuen eta lagunarteko partidaren bat ere jolastu nuen. Aurten, seniorretarako saltoan, bigarren taldearekin jokatzen hasi naiz, eta azkenean, aukera hau eman da. Helburuetako bat debuta egitea zen, eta orduan, amets gisa kontsideratuko dugu, baina espero dut hau hasiera besterik ez izatea.

Eneko Furundarenak Bidasoako lehenengo taldean jokatzen du. Zer nolako harrera egin dizu?

"Furun"-i asko eskertu behar diot. Beregatik izan ez balitz, agian, oraindik taldean integratzen egongo nintzen. Lehengo egunetik lagundu dit, nire ondoan egon da, laguntza emateko prest.



Larrak disko batean batu ditu bere lehen kantak.

"Kantak idatzi ahala piztu zitzaidan disko bat osatzeko gogoa"

IÑAKI LARRAÑAGA, 'LARRA' KANTUEGILEA

Goizero, Kaffa kafetegian aurkituko duzue. Lanean. Arratsaldeetan ordea, bateria eta gitarra ikasten aritzen da. Lehen diskoa plazaratu du eta abentura berriari buruzko xehetasunak azaldu dizkigu.

Kaffako zerbitzarietako bat zara, baina musikalki, Dj Larra zara askorentzat. Halaxe aritu zinen urtetan eta urtetan. Disko hau ordea, ez da Dj baten lana. Hau kantuegile baten disko bat da, ezta?

Egia esan, jende asko harrituta geratu da. Kantak egiten hasi nintzenean, osatu nuen lehendabizikoa da diskoan agertzen den lehena. Jendeari erakutsi nionean, harrituta geratu zen. "Baina nola? Hi Dj-a hintzen, eta orain, gitarra ikasten hasi eta jada kanta bat egin duk?".

Dani Iglesiasekin gitarra ikasten hasi nintzenean, Danik berak eman zidan horretarako aukera: "zergatik ez duzu kanta bat egiten?". "Bale", erantzun nion. Nekizkien lau akordeekin hasi nintzen, eta halaxe osatu nuen lehen kanta. Daniri erakutsi eta gero, bere estudioan gehitu zion bateria, eta gainerako instrumentazioa. Lehen kanta horrelaxe osatu genuen. Txoratuta geratu nintzen emaitzarekin, eta segidan etorri ziren gainerako kanta guztiak.

"NEKIZKIEN LAU AKORDEREKIN HASI NINTZEN ETA HALAXE OSATU NUEN DISKOKO LEHEN KANTA"

Duela urte batzuk, Dani Iglesiasekin hasi zinen gitarra ikasten. Hortaz, hori izan zen disko honen abiapuntua.

Hori da, ni gitarrako ikasle gisa hasi nintzen Danirekin. Nik, berez, oso gaizki jotzen dut gitarra eta oso akorde gutxi dakizkit.

"KANTA BATEN ESANAHIA AZALTZEKO, BIDEOKLIPA OSO BALIOGARRI IZATEN DA"

Eta nolatan hasi zinen gitarra jotzen?

Pandemian hasi zen dena. Etxean sartuta geunden eta zerbait egin beharra zegoen. Nik beti lotura handia izan dut musikarekin. Semearen gitarra etxean nuen, hortxe, eskura. Etxeko gitarra hartu eta Youtubeko tutorial batzuk ikusiz hasi nintzen akorde errazenak ikasten. Pandemiatik atera eta betiko martxara itzuli ginenean, eskolara joatea erabaki nuen. Dani ezagutu nuen eta harekin zerotik hasi nintzen.

Zerotik hasi bazinen, orain ze mailatan zaude?

'Zerokomabostean', kar, kar, kar. Horrela da. Nik nahiago dut abestiak sortu, gitarra ikastea baino.

Lehen kanta egin zenuen momentutik argi zenuen disko bat osatu nahi zenuela, ala kantak egin ahala joan al zara diskoan pentsatzen?

Kantak idatzi ahala piztu zitzaidan disko bat osatzeko gogoa. Ingurukoak hasi zitzaizkidan galdezka, ea zer egin behar nuen kanta guztiekin. "Disko bat egin beharko duzu, CD bat edo zerbait". Nik hasiera batean ez nuen argi ikusten baina berotzen hasi nintzen, eta orain arte.

Tartean, bideoklipen bat ere egin duzu zure kantuetako batekin. Horrek ere bultzada emango zion diskoaren ideiari, ala ez?

Ez pentsa. Bideoa batez ere kanta osatzeko egin genuen. Askotan kantaren esanahia azaltzeko oso baliogarria izaten da bideoklipa.

Eta horretan jarraituko dut, bideoak oso gustukoak ditudalako.

Dani Iglesiasek ekoizle lanak egin dituela esan daiteke. Nola definituko zenuke bere lana? Zer eman die zure kantuei?

⟶ Gakoa izan da. Gaur disko osoa entzun eta gero, telefonoz deitu diot, egin duen lanarengatik zoriontzeko. Beste disko bat entzun dut lehenbizi, gero nirea jarri, eta ez dut alderik sumatu. Oso ondo sonatzen du. Oilo-ipurdia jartzen zait. Danik laguntza handia eman dit baina diskoa plazaratzearen enpeinua gehiago izan da ingurukoena.

Bederatzi kantu aukeratu ditugu CDrako, baina besteren bat kanpoan utzi dugu.

Beste zutabe garrantzitsu bat Unai Muñoa izan da. Berak idatzi ditu letra guztiak, ezta?

Hala da. Gaia nik jartzen diot, eta ordu-erdi batez edo, hortan sakontzen aritzen gara. Gero metrika pasatzen diot, silaba guztiak neurtuta. Eta gaia neurri horretara moldatu behar du.

Esan beharrekoa esateko, bertsolariek erraztasun handia dute. Harrigarria da.



Unai Muñoak idatzi ditu abestietako letrak (ezkerrean) eta Dani Iglesiasek (eskuinean) egin ditu grabaketak eta moldaketak.

Kantak, banan bana

'Niri begira'.

Maitemindu baten ikuspegitik idatzita dago. Harreman bati buruz ari naiz, baina amaieran konturatuko zara gitarra bera dela abestiko protagonista.

'Bizi'.

Kanta hau nire alabari idatzi nion. Momentu txar bat ari zen pasatzen eta abestiaren bitartez, hausnarketarako gako batzuk eman nahi nizkion.

'Goizero'.

Goizero-goizero, Kaffa kafetegiko argiak piztu orduko, bezeroak hortxe izaten ditut, zain. Baina bezerorik gabe, ezin bizi. Tabernari baten hausnarketak dira.

'Zure magala'.

Hau nire aitari eskainitakoa da. 2008an hil zen eta, egia esan, aitarekin izan nuen harremana hotz samarra izan zen. Behin, familiako bazkari batean, izeba-osabak hasi ziren kontu kontari, aitak nirekiko zuen miresmena nabarmenduz. Baina aitak niri ez zidan halakorik azaldu inoiz. Abesti honekin, aitari adierazi nahi diot berandu bada ere, beretik jasotako gauza asko onak izan direla niretzat.

'Denek berdina diotenean'.

Beste sakontasun bat du abesti honek. Denek berdin pentsaten badugu, ez dugulako pentsatzen izango da, ezta?. Kritiko ere izan behar dela, alegia.

'Ongi etorri gurera'.

Bilobari eskainia dago. Udaberrian jaio zen, baina kanta idatzi nuenean jaio gabea zen oraindik. Aitona baten ikuspuntutik idatzita dago.

'Iluntasuna'.

'Happy happy' bizi bagara ere, denok ditugula gure tristurak, gure barne borrokak... Dena ez dela Instagramen ikusten den modukoa.

'Gaur ere hor'.

Herri honetako emakume batean inspiratutako abestia da. Bakardadean bizi da baina akaso guk geuk bakardadean bizitzera behartu dugulako. Bera izan da inspirazio iturri baina berak ez daki, eh?

'Azken balsa'.

Nik asmatutako istorio bat da. Kontzertu askotara bakarrik joaten naiz. Madrilera, Bartzelonara... Astean zehar askotan. Trena hartu, nonbaiten bazkaldu, kontzertura hurbildu... Abentura horretan norbaitekin topo egin eta hor sortzen den kimikari buruz ari naiz.

"NIK EZ NUEN ARGI. DISKOA PLAZARATZEAREN ENPEINUA GEHIAGO IZAN DA INGURUKOENA"

"ESAN BEHARREKOA ESATEKO, BERTSOLARIEK ERRAZTASUN HANDIA DUTE"



Diskoaren azala hauxe da.

CDa, Kaffan eskuragarri

Diskoa fisikoki, Kaffa kafetegian eskura daiteke, CD euskarrian. Tirada motza egin du, beraz, azken aleak baino ez zaizkio geratuko.

Plataforma digitaletan ere aurkituko dituzue Larraren abestiak. Spotifyn eta Youtuben, Iñaki Larra izenarekin topatuko duzue bere lehen diskoaren erreferentzia.

Instagramen ere badu profila, @djlarra helbidean.

Ez du zuzenekorik emateko asmorik, baina egitekotan, Dani Iglesiasekin egingo luke saioren bat.



Munduko pilota txapelketara joan aurretik, euskal selekzioak eginiko agerraldiko argazkia. Bertan da Beñat Lizaso.

"Munduko txapelketa jokatzeagatik pribilegiatuak gara"

Munduko Euskal Pilota Txapelketa jokatuko da egunotan Argentinan eta Uruguain. Estreinakoz euskal selekzioak parte hartuko du hainbat modalitateetan. Euskal pilota egokitukoan lehiatuko direnen artean izango da Beñat Lizaso Muxika usurbildarra. Pozarren da eta esker oneko, bere kirol ibilbideak eman dionagatik.

ARITZ LASARTE

Txapelketa historikoaren atarian da egunotan Euskal Herria. Euskal selekzioak lehen aldiz parte hartuko du Euskal Pilotako Munduko Txapelketan, itsasoz bestalde. Lehiaketa horren hogeigarren edizioa, urriaren 15etik 24ra izango da Argentinan (Buenos Airesen) eta Uruguain (Colonia del Sacramenton). 41 pilotarik (31 gizonezkok eta 10 emakumeek) eta bederatzi entrenatzaileek ordezkatuko dute aipatu euskal selekzioa; haien artean, usurbildar batek; Beñat Lizaso Muxikak hain zuzen. Aipatu moduan, 41 pilotarik eta haiekin batera, bederatzi hautatzailek parte hartuko dute mundu mailako hitzordu entzutetsu horretan. Hamahiru modalitateetan lehiatuko dira pilotariok: 54 zein 36 metrotan zestaz; 36 metrotan, eskuz, paleta larruz eta paleta motzarekin; parapilotan frontoian eta trinketean; 30 metroko frontoian gomazko paletarekin; eta frontball zein xarean.

"AITZINDARIAK IZANGO GARA. GURE IZEN-ABIZENAK HOR GERATUKO DIRA BETIKO"

Beste hamalau herrialdeetako selekzioekin lehiatuko dira euskaldunak.

Iragan igandean abiatu ziren euskal selekzioko kideak Argentinarantz. Agur beroa eman eta dantzatu zieten, Loiuko aireportura zorterik onena helaraztera joandako hainbat lagunek. Pasabidea ireki zieten

"TXAPELKETA JOKATZETIK KANPO GERATU DIRENENGATIK ATSEKABEA SENTITZEN DUGU"

ikurriñak eskuartean, 7Baietz elkarteak eta Gure Esku herri mugimenduak eginiko deialdian parte harturikoek.

Bestalde, "zorte onena opa dizuegu!!", adierazi diete egunotan, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federaziotik lehiaketa horretara joandakoei. Izan ere, bertatik gogorarazi duten moduan, "pilota egokituko taldea ere bertan ariko da lehian, tartean, Gipuzkoako hiru pilotari eta gure lankidea den hautatzailea"; horien artean da, Lizaso bera.

Pilota egokituan

2008tik ari da lehiatzen Beñat pilota egokituan. Euskal Pilotako Munduko Txapelketako aurreko edizioa Euskal Herrian, Biarritzen jokatu zen 2022. urtean. Duela lau urteko ekinaldi hartan Espainiako selekzioarekin egin behar izan zuen erakustaldia Lizasok. Oraingo honetan, ordea, pozarren agertu da usurbildarra; batetik, euskal selekzioarekin jokatu ahal izango duelako, eta, bestalde, modalitate ofiziala izango delako berea. Aitortza bikoitza, beraz, usurbildarraren jardunarentzat.

"Sinestu ezinik nabil, igandean hegazkina hartuko dugula", adierazi zigun Lizasok, Loiutik Argentinarantz abiatu aurreko egunetan. Argi du, milaka kilometroetako bideak, "mereziko du". Izan ere, estreinakoz mundu mailako txapelketan parte hartuko du euskal selekzioak. "Munduko txapelketa jokatzeagatik pribilegiatuak gara. Aitzindariak izango gara. Gure izen-abizenak hor geratuko dira betiko", bere esanetan. Gogoan ditu, hautatu gabe geratu diren kideak. Deialditik "kanpo geratu direnengatik atsekabea sentitzen dugu. Ea haiek ordezkatuz, pare bat domina ekartzen ditugun".

Iaztik ari dira prestatzen egunotan jokatuko den munduko txapelketa. Iragan urte amaieran, Bilbon jokatutako nazioarteko txapelketatik hi-

⟶ tzordu horretarako bidea zabaltzen hasi zitzaien eta "iritsi da mundiala", Lizasoren hitzetan. Bizkaiko hiriburuan iaz bizitakoaz oroitzapen ederra du. "Bakoitza bere herria edo nazioa ordezkatzen, gu erdi-erdian ginen. Oilo-ipurdia jarri zitzaigun". Nazio gisa, selekzio moduan orduan hasi ziren sentitzen aitortza, usurbildarraren esanetan.

Ordutik, azken hilabeteotan bideratu dituzte prestaketa lanak. Harridura agertu digu Lizasok egunotako erronkari aurre egiteko jarri zaizkien baliabideekin. "Ez nuen sekula halakorik pentsatuko", adierazi digu. Psikologoa, dietista... izan dute bidelagun. Psikologoaren ekarpena nabarmendu digu Lizasok. "Asko lagundu gaitu. Ez nekien zer garrantzitsua den arlo hori". Lehiarako emozioak kudeatzen, prestatzen, nahiz talde barruko harremanetarako oso baliagarria izan zaiela adierazi digu.

Abiapuntuarekiko esker onez

Lizasok lerroon bidez, esker hitzak nabarmendu nahi ditu. Urte luzeetako ahalegin itzelaren emaitza da munduko txapelketan parte hartzeko ohorea izatea. Baina bide horren abiapuntua ekarri nahi izan digu gogora. "2008an hasi ginen. Zortzikote bat bildu ginen Usurbilen", herriko frontoian. Ordutik hamaika entrenamendu saio, txapelketa eta erakustaldietan parte hartu du Lizasok. "Talde haren sortzaileei esker izan ez balitz, haien lanik gabe ez ginen honaino iritsiko". Eskerrak eman nahi dizkie Beñatek haiei guztiei. "Pozgarria izan zen Usurbilen bizitako esperientzia".

Halere, txikitatik datorkio pilotarako zaletasuna. Txirrindularitzarekin batera uztartu izan du bere kirol ibilbidea. Baikortasunez begiratzen dio iraganari. "Txikitan istripua izateak lagundu dit onartzen hainbat galera izan arren, zertan bihurtu naizen", adierazi digu.



Beñat Lizaso Muxika taldeko kideekin, usurbildarrak helarazitako neurketetako baten argazkian.

"Pauso polita izan zen"

Egunotako txapelketaren harira, honako desioa plazaratu nahi izan du. "Ea mundu mailan zabaltzen hasi eta jendea animatzen zaigun", bere esanetan, ez baita erraza kide berriak gurpildun aulkiko kirol modalitatean jokatzera erakartzea eta daudenak mantentzea; "maila oneko jendea joan da eta datorrenak hutsetik hasi behar izaten du". Horrez gain, lesioak izaten dira eta Lizasok kontatu digunez, istripuz hanka galdutakoen kasuan, "berriro ikasi behar izaten dugu ibiltzen. Aulkia ikusitakoan, zutikako beste kirol jarduera batzuk egiten saiatzen zara". Bere kasua, halere ezberdina izan zen, eta ez da inolaz ere damutzen. "Pauso polita izan zen". Kirola egiteak fisikoki nahiz mentalki dakarren onura osasuntsua nabarmendu digu. "Buruarentzako askatasuna da eta fisikoki ez gara hain elbarrituak sentitzen".

Munduko txapelketa honen atariko hilabeteotan, talde kohesioa indartzen joan dira haien modalitatean nahiz beste jardueretan, egunotan lehiatuko diren euskal selekzioko kideekin. Elkarrizketa hauetan, azkenaldian nahiz lehendik ere kideei esan izan dien moduan, "pozten naiz honaino iritsi izanagatik. Ezbehar hau gertatu ez balitzaigu, ez ginen elkar ezagutuko, ezta jarduera honetan arituko ere. Begira orain, ze poztasuna dugun, halako esperientzia traumatikoa bizi eta hemen egoteagatik".

Ikusgarritasuna eta baliabide gehiago

Munduko txapelketaren atarian, hitzordu hau haien jarduera ezagutarazi eta jendea erakartzeko baliagarria izatea nahi luke Lizasok. "Espero dut hemendik aurrera, nazio gehiago animatzea. Lau delegazio gaude, beste modalitateetan, zortzi edo bederatzi nazio dira. Hor zailtasun gehiago dago sailkatzeko lehen postuetan".

Jardueron sustapen lanerako lagungarriak izan daitezkeen bi gako nabarmendu dizkigu usurbildarrak; batetik, ikusgarritasuna areagotzea. "Bere tartetxoa behar luke kirol jarduera bakoitzak", usurbildarraren esanetan. Horrekin batera, baliabideen beharra ere nabarmendu du, inguruotatik kanpo jokatu dutenean ikusi eta bizitzea egokitu izan zaien moduan.

Belaunaldi gazteari egin dio deia, anima daitezen jarduerotan trebatzera. "Gazteak gaztea erakarriko du. Gu irakasteko prest izango gara", Lizasok aditzera eman digunaren arabera.

Lehenago, aurrekaririk gabeko erronka izango du jokoan egunotan usurbildarrak. Historikoa izango da, euskal selekzioarentzat eta nola ez, haien izen-abizenak betiko iltzatuak geratuko diren herri honetako kirolarientzat ere; tartean, Beñat Lizaso Muxika usurbildarrarentzat.

"USURBILGO TALDE HAREN SORTZAILEEI ESKER IZAN EZ BALITZ, EZ GINEN HONAINO IRITSIKO"

"ESPERO DUT HEMENDIK AURRERA, NAZIO GEHIAGO ANIMATZEA. LAU DELEGAZIO GAUDE"

Belaunaldi gazteena protagonista, San Praixkuen amaieran

Haurrei eta gazteei zuzenduriko eskaintzarekin agurtu dituzte aurtengoz, Aginagako jaiak.



Belaunaldi gazteenaren eskutik itzuli zen jai giroa Aginagara.

San Praixkuen bigarren eta azken asteburuan, plazaratzen lehenak haurrak eta gaztetxoak izan ziren. Izan ere, jaieguna izan zuten urtero moduan, Aginagako eskolan. Ikasgelatik kanpo igaro zuten urriaren 9a, Umeen Eguna ospatu baitzuten goizetik iluntzera. Jai batzordeak prestaturiko hainbat ekintzetan parte hartu zuten. Hasteko, marrazten eta buztina lantzen aritu ziren. Artelan ederrak ondu zituzten. Gero, jolasari ekin zioten. Aulki jokoan parte hartu zuten, globoak lehertzen, sagar jatean, arrautzak goilara bidez eta oreka bikaina mantenduz Ariztitxo frontoian barrena garraiatzen... Adin tarte ezberdinetako gaztetxoek goiz pasa ederra igaro zuten elkarrekin. Puzgarriek, txokolate janak edota Lauburu konpartsakoen aurtengo azken kalejirak borobildu zuten egun hura.

Lauburukoen agurra

Udako azken jaiokin batera egin zuen Lauburu konpartsak ere aurtengo azken kalejira. Ixabel eta Ixidro erraldoien azken dantzen erakustaldi ederraz gozatu zuten hitzordura joandakoek. Herri nortasunaren ispilu diren buruhandi berriek ihesaldi bat baino gehiago eragin zuten. Dultzaineroekin batera, herri erdigunean barrena eginiko birak zaletu eta bidelagunen komunitate fidela erakarri zuen. Bigarren urtez segidan, inguruotako jaiak girotzen eta jendea tokian tokiko ospakizunetara erakartzen aritu da Lauburu.

"GAZTEENEK IKASGELATIK KANPO IGARO ZUTEN UMEEN EGUNA"



Jai batzordearen hamaika jolasetan parte hartu zuten gazteenek.



Haurrek eta helduek primeran pasa zuten arratsaldea puzgarrietan.



Lauburu konpartsakoak aurtengo azken kalejira hasi aurreko talde argazkian.



Lauburu konpartsak aurtengo azken kalejira egin zuen Aginagan barrena.

Oria biziberritu dute Aginagako estropadek

San Praixkuetako trainerilla txapelketa jokatu zuten Aginagako jaien azken txanpan.

Oria gogotik biziberritu zuten estropadok. Izan ere, San Praixku Bandera izan zen jokoan urriaren 10ean, seigarrena emakumezkoen artean. Lau ziabogako proban, antolakuntzak zehazturiko eremuari bi itzuli ematen azkarrena Tolosa izan zen. Segundu bakar batera sailkatu zitzaion Donostiarra, segidan Ondarroa. Lehia bizia izan zen. Emakumezkoen txapelketan baino lehiakide bat gehiago izan zuten gizonezkoenean. San Praixkuetako 12. Bandera etxeratzeko lehiatu ziren Getaria, Hondarribia, Ondarroa eta Orio. Azkenean, aurreko edizioko talde bera nagusitu zen oraingo honetan ere, baina marka hautsita; Aginagak mugakide duen udalerriko arraunontzia, Orio. Lehia bizia eskaini zieten hitzordura joandakoei. Eguraldi ederra lagun, giro aproposa izan zen proba hau jokatzeko. Irabazleek gogotik astindu zuten, ikurriña eta Aginagako bandera bateraturiko oihal bikoitza probaren amaieran. Bertaraturiko ikus-entzule mordoak gogotik txalotu zituzten parte hartzaile guztiak proban zehar, eta nola ez, irabazleak amaieran.



Tolosa nagusitu zen emakumezkoen arteko lehian.

San Praixkuetako trainerilla txapelketa
Emakumezkoen 6. bandera
1-Tolosa: 8:56.
2-Donostiarra: 8:57.
3-Ondarroa: 10:35.

Gizonezkoen 12. bandera
1-Orio: 7:41.
2-Ondarroa: 7:56.
3-Getaria: 8:07.
4-Hondarribia: 8:24.

"LEHIA BIZIA ESKAINI ZIETEN ERRIOKO HITZORDURA JOANDAKOEI"



Orio nagusitu zen gizonezkoen arteko lehian.



Segundu bateko tartean helmugaratu ziren emakumezkoen bi arraunontzi.



Hiru talde lehiatu ziren emakumezkoen arteko trainerilla txapelketan.



Lau talde lehiatu ziren gizonezkoen arteko trainerilla txapelketan.

Ikastaro eskaintza Zumarte Musika Eskolan

Ikastaro trinkoen eskaintza iragarri du Zumarte Musika Eskolak, berrikuntza batekin. Lehen aldiz, 18 urtetik gorakoei zuzenduriko Musika Mintzaira antolatu dute. "Ezagutu musika mintzaira taldean, modu praktikoan, partiturak irakurtzeko, instrumentu bat jotzeko, abestiak sortzeko... Animatu!".

Urriaren 19an zabalduko da matrikulazio garaia eta hilaren 23an itxiko da:

• Musika Mintzaira+18 urte (taldean): ostegunero 16:00-17:00 artean, Jon Makusoren gidaritzapean. Prezioa: matrikula 119 euro+26 euro hilean.

• Gitarra+55 urte (taldean): asteartero 10:00-11:00 artean, Ixak Arrutiren gidaritzapean. Prezioa: matrikula 119 euro+26 euro hilean.



Baxu ikastaroa, Ixak Arrutiren eskutik.

• Dultzaina: astean behin ordu-erdiz, Julen Beraza irakaslearekin adosturiko egunean. Prezioa: matrikula 163 euro+34 euro hilean.

• Baxu elektrikoa: astero ordu-erdiz, Ixak Arruti irakaslearekin adosturiko egunean. Prezioa: matrikula 163 euro+34 euro hilean.

Ordainketak: ordaindu beharreko hileko kuotak zortzi izango dira, azarotik ekainera.

Booktegi jaialdiko hitzorduetan izena emateko garaia

Euskarazko literatura guztion esku jartzen diharduen Booktegi elkarteak ekimen berriak iragarri ditu aurtengorako. Ruper Ordorika izango du protagonista nagusia, baita Mihise herriko taldea edota Anariketa ekimena. Hauxe duzue egitaraua:



Anariri gorazarre egingo zaio aurten.

Urriak 30, ostirala

• 19:00 Solasaldia Ruper Ordorikarekin Sutegin. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Urriak 31, larunbata

• 10:30 "Elkarri irakurriz" solasaldiak Zumarte Musika Eskolan.

• 17:00 Booktubers bideoak.

• Ondoren, Arbaso Eguna mahai-jokoa Sutegin.

• 19:00 Ruper Ordorika eta Mugalariak Sutegin.

• Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman sarrera eskuratu eta eskudirutan ordainduko da (15 euro) Sutegi atarian.

Azaroak 1, igandea

• 11:00 Mihiseren "Ahaldatu" kontzertu baten filma Sutegin.

• 12:00 Anariketa Sutegin. "Hainbat lagunek abesti bana nahi duten moduan interpretatuko dute".

Izen-ematea: Sutegi udal liburutegian.



Eskaerak egiteko epea urriaren 22an irekiko da.

Errigoraren udazkeneko kanpaina

"Sustraitik espaziora" aldarrikpean, Errigorak abiatzear du udazken parteko "Euskarari Puzka" kanpaina. Urriaren 22tik azaroaren 12ra egin ahal izango dira eskaerak, ohi bezala, errigora.eus atariaren nahiz NOAUA! K.E.-ren bidez.

Hiru saski izango dira aukeran

Saski beltza (60 euro), saski berdea (65 euro) eta saski gorria (75 euro). Gutxienez haietako bat erostearen truke, landatu daitezkeen orriez osaturiko egutegi berezia sortu du Errigorak. Egutegiok eskuratzeko eginiko ordainketaren erdia, urte zaila bizitako Lodosako Ibaialde ikastolara bideratuko dute.

Xehetasun gehiago datorren aldizkarian emango dizkizuegu.

"Habitat. Ezkutatu diguten historia" erakusketa eta bisita gidatua

Udarregi ikastolak urriaren 22rako antolatu du hitzordua, 16:45ean hasita Potxoenean. "Lehenik, DBHko ikasleak pasako dira eta ondoren, herritar guztiei zabalduko zaizkie ateak", antolatzaileen esanetan.

Euskal Herriaren historiaren gakoak azaltzen ditu Nabarralderen erakusketak; "euskalnafarren habitata eta lurraldetasuna; mugarriak izan diren datak, pertsonaiak, eta gertaera garrantzitsuak modu grafiko argi eta atseginean kontatuak".



Beñi Agirrek gidatuko du bisita.

Hamalau panelez osatutako erakusketa

Erakusketa hamalau panelez osaturikoa da. Ongi etorria ematen duenarekin batera, ""habitat" jakin batean gizakiak jokatu duen historia kontatzen da; ekologian ere erabiltzen den habitat kontzeptuarekin batera gizakiak sortutako hizkuntza, kultura eta erakundeak aztertuz, XIX. mendera arte". Erakusketa ikusteaz gain, bisita gidatuan parte hartzeko aukera izango da. Erakusketa landutako Nabarralde kultur elkarteko kide Beñi Agirrek gidatuko du. Nafar-Euskal Herriaren memoria historikoa sustatzen dihardu Nabarraldek.



Usurbilen Nahi Ditugu taldeak 2017an sustaturiko horma-irudia. Ugarri taldeak margotu zuen.

Horma-irudia margotzera doa Sare

Azken ostiraletako mobilizazioei amaiera ematera doa Sare. Aurretik, urteotan Usurbilen presoen eskubideen alde hainbat herrikideek eta eragileek eginiko lana aitortzeko horma-irudia margotu nahi dute larunbat honetan, urriaren 17an; egunotan zehaztuko dute non eta noiz.

ARITZ LASARTE

Arrastoa utzi nahi dute, gerora ahanzturan gera ez dadin. Horixe egin nahi du Usurbilgo Sarek. Horma-irudi bat sortuko dute, larunbat honetan, urriaren 17an. Egunotan iragarriko dute hitzordua, lekua eta ordu zehatza. Eguerdi partean izango dela aurreratu dute. Sorkuntza lan horrekin, herri honetan hamarkada luzez hainbat eragileei eta herritarrei presoen eskubideen alde eginiko lana aitortu nahi zaie. Horrez gain, herri honen historiaren parte izan eta sufrimendua eragindako hainbat eskubide urraketa islatuak uztea nahi dute. "Arrasto bat utzi nahi dugu herriko horma batean", Usurbilgo Saretik gogorarazi dutenez, besteak beste, urte luzeetako sakabanaketa, isolamendua, bizi arteko espetxe zigorrak, gradu-erregresioak, istripuak edota motxiladun haurrak, "herri mailan ere sufritutako eskubide urraketak, irudi batean islatuak gera daitezen".

Gogoan izan, hamarkada honen hasieraz geroztik, Euskal Herriko beste hainbat udalerriren antzera, presorik gabeko herria da Usurbil. Sarek bideraturiko barne hausnarketatik ziklo aldaketa baten atarian da herri eragilea. Orain arteko dinamika modua aldatzekotan da. Azken ostiraletako elkarretaratzeak amaitutzat eman edo emate bidean dira hainbat herrietan. Usurbilen, urrian, azaroan eta abenduan egingo dituzte azken mobilizazioak; datorrena, hilaren 30ean iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. "Animatu parte hartzera", deitu du Usurbilgo Saretik. Gogora ekarri digute, hamarkada hauetan guztietan, preso, iheslari eta deportatuen eskubideen defentsan aritu direla hainbat eragile eta herritar. "Soka bereko haria gara", adierazi dute Usurbilgo Saretik.

"Helmuga, denak etxera"

Geratzen diren azken elkarretaratzeak, Bilboko manifestazio nazionalerako bozgorailu lanak egiteko baliatu nahi dituzte, larunbateko horma-irudiaren margoketa bezalaxe. "Mobilizazio nazional horretarako deialdi berezia egin nahi genuke, Euskal Herriak adierazi dezan, geratzen diren korapiloak askatu behar direla", aipatu herri eragiletik adierazi dutenez. Hain zuzen, Euskal Herri mailako Sarek urtarrilaren 9an Bilbon azkena izatea nahi luketen manifestazio nazionala iragarri du "helmuga, denak etxera" aldarripean. Ziklo aldaketaren mugarria izango da Sarerentzat. Hortik aurrera, Usurbilen ez da azken ostiraletako mobilizaziorik izango, baina horrek ez du esan nahi, duela hamabi urte sortutako herri mugimendua desegingo denik, "Sareren helburua, azken presoa askatu arte lanean jarraitzea" baita. Beraz, Usurbilgo taldeak Euskal Herri mailakoaren baitan, unean uneko dinamikak babestu eta sustatzen segiko du.

"ARRASTOA UTZI NAHI DUGU URRIAREN 17AN HERRIKO HORMA BATEAN"

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna goizeko 8:00etan hasi eta eguerdiko 14:00etan amaituko da.

Ibilian, eskualdea hobeto ezagutzeko aukera igandean

Ibilian-ibilian, Beterri Buruntza eskualdea zeharkatzeko aukera ederra eskainiko dute udalek, igande honetarako antolaturiko 18. Buruntzaldeko Ibilbideen Egunarekin.

ARITZ LASARTE

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako kirol zerbitzuek hemezortzigarrenez lankidetzan antolatu dute inguruotan ditugun bideotatik barrena osteratxo ederra egitea eta gertuan ditugun bazterrak hobeto ezagutzea ahalbideratzen digun ekimena. Izan ere, jarduera fisikoa sustatzearekin batera, eskualdeko natura- eta landa-eremua zein aipatu udalerrion arteko lotuneak sakonago ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Guztira, bost ibilbide osatzeko aukera egoten da, "baso, baserri, baseliza eta naturazein kultura-intereseko beste hainbat gunetatik igarotzen diren bide eta pistetan barrena. Ibilbideak gezi eta zutoinen bidez seinaleztatuta daude, eta udalerri bakoitzean trazatu, profil eta distantziei buruzko informazioa duten panelak daude", antolatzaileen esanetan.

Datorren igandeko, hilaren 18ko goizeko 8:00etan hasi eta arratsaldeko 14:00ak arte izango da aurtengo edizioa. Aurreko urteetan bezalaxe, "ibilbidea hastean, parte-hartzaile bakoitzak irteerako udalerriaren zigilua duen txartel bat jasoko du. Bi ibilbide osatzen dituztenek oroigarri bat jasoko dute". Halaber, ekimen honen sustatzaileek aditzera eman dutenez, "Andoain–Lasarte-Oria edo Andoain–Usurbil ibilbideak, edozein norabidetan, egiten dituztenek ere jasoko dute oparia".

BURUNTZALDEKO IBILBIDEAK GEZI ETA ZUTOINEN BIDEZ SEINALEZTATUTA DAUDE

IBILTARIAK IRTEERAKO UDALERRIAREN ZIGILUA DUEN TXARTELA JASOKO DU

Buruntzaldeako Ibilbideen 18. Eguna

• Urriak 18, igandea.
• Ordua: 8:00-14:00.
• Informazioa jaso, txartela zigilatu eta ura zein mokadutxoak hartzeko postuak:
Andoainen eta Urnietan: udaletxe azpialdean.
Lasarte-Orian: San Pedro elizaren ondoko plazan.
Usurbilen: Santueneako Zorrotz zubiaren ondoan eta Aginagako Mapil baserriaren inguruan.
• OharraK:
-Ibilbidea hastean, parte-hartzaile bakoitzak irteerako udalerriaren zigilua duen txartel bat jasoko du. Bi ibilbide osatzen dituztenek oroigarri bat jasoko dute. Halaber, Andoain–Lasarte-Oria edo Andoain–Usurbil ibilbideak, edozein norabidetan, egiten dituztenek ere jasoko dute oparia.
-Bideetako seinaleztapena, udalerri bakoitzaren kolorean: Andoain urdina, Lasarte-Oria urrea, Urnieta berdea eta Usurbil laranja. Udalerri guztietan bideei buruzko informazio panelak.

Ibilbideak:

Andoain–Lasarte-Oria. Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak: urdina eta urre zaharra; 7,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
Andoain – Urnieta. Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
Andoain – Usurbil. Andatzatik barrena. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
Lasarte-Oria – Urnieta. Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa

⟶ da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
Lasarte-Oria – Usurbil. Koloreak, urre zaharra eta laranja; 4,5 kilometro Santuenearaino eta 9 kilometro Aginagaraino. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
Lagungarria: Navi Ruta izeneko aplikazioa dago, telefono mugikorrentzat egokia dena; honen bidez Buruntzaldeko ibilbideetako edozein egiterakoan, sistemak modu jarraituan emango duen informazioa (kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak…) jaso ahal izango da. Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatzeko udalerri bakoitzean jarriak dauden paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira.

Itzulerarako autobus zerbitzua

Zerbitzu hori erabiltzeko parte-hartze txartela zigilatuta aurkeztu beharko da:
• Aginaga, Ezpaldi gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.
• Usurbil, San Inazioko biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.
• Lasarte-Oria, Dorretxeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
• Andoain, Goikoplaza atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.
• Urnieta, Kiosko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.
Antolatzaileak: Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak.

Informazio gehiago, kiroldegietan:
Andoain: 943 30 01 47.
Lasarte-Oria: 943 37 61 82.
Urnieta: 943 00 83 28.
Usurbil: 943 37 24 98.



Aguraingo saioan hirugarren izan zen baina puntuazioari esker, finalaurrekoetara sailkatzea lortu zuen zubietarrak.

Asier Azpiroz Iztueta, hurrengo faserako sailkatua

Asier Azpiroz Iztuetak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako Aguraingo saioan parte hartu zuen, urriaren 11n. Eibarko finalaurrekoan abestuko du, urriaren 31n.

ARITZ LASARTE
Nerea Elustondo Plazaolak jaso zituen puntu gehien eta zuzenean sailkatu zen finalaurrekoetarako. Aguraingoa lehen faseko azken saioa izan zen. Honenbestez, hitzordu horren amaieran ezagutarazi zituen Bertsozale Elkarteak finalaurrekoen faserako (urriaren 24tik abenduaren 5era) sailkatuko diren puntu gehien jasotako hamazazpi bertsolariak; horien artean da Azpiroz. Urriaren 31n, Eibarko Ipurua kiroldegian ariko da bertsotan bigarrenez, 17:00etan hasita. Lehiakidea izango du berriz, Elustondo eta haiekin parte hartuko dute hitzordu berean, Alaia Martin Etxebestek, Miren Artetxe Sarasolak, Nerea Ibarzabal Salegik eta Oihana Iguaran Barandiaranek. Igotz Alkorta Irastorzak aurkeztuko duen saio horretarako sarrerak, fase horretako gainerakoetarako bezalaxe, salgai dituzue bertsosarrerak.eus atarian. ETB1 On kateak zuzenean eskainiko du saio hau eta gainerako finalaurrekoak ere bai. Fase horretara sailkaturiko hamazazpi bertsolariekin ariko dira bertsotan, 2022ko edizioko finalistak. Haietatik zazpi izango dira, aurreko edizioko txapeldun Maialen Lujanbioarekin batera, abenduaren 20an Iruñean izango den finalean.

Finalaurrekoetara sailkatutako bertsolariak
Asier Azpirozekin batera, Miren Artetxe, Nerea Elustondo, Maddi Ane Txoperena, Saioa Alkaiza, Julio Soto, Ane Labaka, Aner Peritz, Maddalen Arzallus, Xabat Illarregi, Aitor Bizkarra, Oihana Iguaran, Oier Etxeberria, Xabat Galletebeitia, Gorka Pagonabarraga, Agin Laburu eta Andoni Rekondo.

URRIAREN 31N, EIBARKO IPURUA KIROLDEGIAN ARIKO DA BERTSOTAN

ARANKA BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



Udalbatza aretoko udal ordezkariek aho bateko babesa eman zieten 2027ko ordenantza fiskalei.

%3,7ko igoera, 2027ko ordenantza fiskaletan

2027rako ordenantza fiskalak hasiera onartu zituen udalbatzak urriaren 7ko ezohiko osoko bilkuran. KPI-aren %3,7ko igoera aplikatuko zaie orohar, urte berrirako zerga, tasa eta prezio publikoei, salbuespenak badiren arren.

ARITZ LASARTE

Datorren urteko udal aurrekontuak onartu aurretik, urte berrirako zerga, tasa eta prezio publikoak hasieraz onetsi ditu udalbatzak egunotan eginiko ezohiko osoko bilkuran, aurrez, udal barruko Antolaketa Batzordean aurkeztu eta oposiziotik emendakinik jaso ez ostean. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, alegazioetarako epealdia zabalduko du Udalak.

%3,7ko igoera

Udal gobernu taldetik aditzera emandakoaren arabera, KPIaren igoera aplikatzea erabaki dute oraingo honetan ere; zehazkiago esanda, uztailean erregistraturikoa, %3,7a. Badira, ordea, urtero moduan, igoera orokor horretatik salbuetsitako hainbat zerga, tasa eta prezio publiko. Horien artean da, ur-hornidurari lotutakoa. Estolderiagatik %75a kobratzen du Udalak. Horrez gain, gobernu taldeak gogora ekarritakoaren arabera, amaierara bidean den 2023-27 legealdiaren hasieran ur zikinak ibaira edo itsasora isuri aurretik, arazketa prozesuagatik ordaindu beharreko tasa %75ekoa izatera heltzeko erronka jarri zuten baina igoera hori progresiboa izatea.

"UNE HONETAKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN DEFIZITA INOIZKO TXIKIENA DA"

USURBILGO EHBILDU

2027rako %15eko igoera aplikatuko dute, %75eko ehuneko horretara heltzeko.

Tasa bidezkoagoak

Hondakinen tasari, bestalde, 2027an %10eko igoera aplikatzea erabaki du udalbatzak. EH Bilduren esanetan, Usurbil 0.0 plangintzaren helburuetako bat hondakinen kudeaketaren defizita zero izatea da. "Hortik inoiz baino gertuago gaude. Une honetako defizita inoizko txikiena da, azken urteotako neurriei esker", Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesaren esanetan. Urtea, 120.000 euroko defizitarekin amaitzea aurreikusia du gobernu taldeak; iaz, 219.000 eurokoa izan zen.

"ASPALDI ARI GINEN EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA ALDARRIKATZEN"

USURBILGO EHBILDU

Defizit hori murriztea ahalbidetu dute hondakinen tasaren igoerak eta hortik eratorritako diru-sarrerek. Izan ere, "tratamendu gastuak ere murriztu egin dira", EH Bildutik egunotako osoko bilkuran aditzera eman bezala, "aspalditik egiten ari ginen aldarrikapena" bete delako; Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) adostutako akordio politikoa hain zuzen. Horren bidez, "hondakinen tratamendu tasa bidezkoagoak" ezarri dituzte. Hala, "gaika ondo biltzen dugun herriok" eginiko ahalegina saritu dute. "Horrek tratamendu gastuetan ere murrizketak" ekarri ditu.

Ondorioz, legealdi honetan, "defizita erdira jaistea" lortu dela nabarmendu du EH Bilduk. Egun, "hondakinen tasa txikiena duen herrietako bat da" Usurbil, gobernu taldetik gogorarazi dutenez. Herria hazi arren, %85eko gaikako bilketari eusten diola gaineratu dute.

Zerga turistikoa

KPI-aren igoera orokorretik kanpo geratuko da baita, prezio publikoei dagokienean, Oiardo kiroldegiko abonamendua. Izan ere, %5,5 igoko da 2027an, legealdi hasieran Buruntzaldea mailan eskualdeko udalek (tartean Usurbilgoak) hala egitea adostu ostean. Horrekin batera, Udajolasen gastuen erdia estaltzeko 15 euro garestituko da kuota hurrengo urtean, 150 eurora arte.

Horrez gain, badira zerga berriak ere; tartean, zerga turistikoa edo "egonaldi turistikoen gaineko zerga". EH Bildutik, "aspaldi ari ginen zerga hau aldarrikatzen". Batzar Nagusietan tasa horren alde

agertu zirela ekarri zuen gogora alkateak, haien proposamenak barnebiltzen zirelako: tokian tokiko errealitatera egokitzeko moduko udal zerga izatea, izaera progresibokoa hain zuzen. "Foru arauak ezartzen du zerga hau nola arautu behar den". Ostatuek hiruhilero aurkeztu beharko dituzte autolikidazioak.

Udal aurreikuspenen arabera, "urte erdiz ditugun ostatu guztiak betez gero", udalean 40.000-60.000 euro arteko diru-sarrerak ekarriko lituzke zerga honek.



Hondakinen kudeaketari lotutako defizita nabarmen murriztu dela eman du aditzera udal gobernu taldeak.

Hobarien indartzea

Berrikuntzak izango ditu baita Ondasun Higiezinen Gaineko Zergak ere. Batetik, izaera bereziko ondasunei lotutako zerga ordenantza fiskalen baitan txertatuko da. Azpiegiturak (autopistak, aireportuak, errepideak, trenbideak...) zergapetzen ditu. Usurbilgo kasuan, trenbidea eta AP8 errepidea sartuko lirateke baina horiek salbuetsiak daude. Horrekin batera, eraikitako etxebizitza parkean eragiteko, estreinakoz %150eko errekargua aplikatzen hasi zen iaz Udala bizileku hutsei. Errekargu horretatik salbuetsi daitezkeen kasu gehiago jaso dituzte 2027rako ordenantza fiskaletan. Kasuotarako, hobariak ere badirela gogorarazi du udal gobernu taldeak.

Hobariak aitortuko zaizkien zaurgarritasun egoeran diren kolektiboak handitzea ahalbidetuko du. %90era arteko hobariak jaso ahalko dituzte orain arte bezala familia ugariek, baina aurrerantzean, baita guraso bakarreko bizikidetza-unitateek edota indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeek ere.

Kasuoz gain, urteotako udal hobarien sistemaren indarraldiari segida emango dio Udalak 2027. urtean ere, "herritarrei udal zerbitzu guztietarako sarbide berdintasuna bermatzeko". EH Bildutik ezagutarazitako datuen arabera, egun 239 bizikidetza-unitate dira Usurbilek duen hobaridun kopurua; kasu gehienetan, %90eko hobariak jasotzen ari dira.

Usurbilgo alkatearen esanetan, "guretzat fiskalitatea ez da soilik Udalaren funtzionamendua bermatzeko diru-sarrera soila, guretzat bada bitarteko edo tresna bat, proiektu politikoa garatzeko; Usurbil berdinzaleagoa, bizigarriagoa eta jasangarriagoa eraikitzen jarraitzeko. Zentzu horretan, erreparatzen diogu batez ere bi ildori; nola sakondu berdintasunean eta justizia sozialean eta trantsizio ekosozialean edo nola lagundu etxebizitza politika fiskalitatearen bidez".

Hobarien sistemari eutsiko dio Udalak datorren urtean ere. Hobariak aplikagarriak dira honako tasa eta prezio publikoetan: ur hornidura, hondakinen bilketa, estolderia zerbitzua, hileta zerbitzuak (panteoikoak izan ezik), baratzeen erabilera, kirol zerbitzuak (kiroldegiko abonamenduak eta ikastaroak) eta Udajolas. 2027tik aurrera, OHZn ere aplikatuko da.

"HERRITARREI ERAGINDAKO IGOEREI EUSTEKO GAITASUNA EGON BEHAR DU"

USURBILGO PSE-EE

"ALDE BOZKATUKO DUGU. URTEROKO IRIZPIDEAK BERDINAK IZAN DIRA"

USURBILGO EAJ

PSE abstentzioaren alde

Abstentzioaren aldeko jarrera agertu du Usurbilgo PSE-EEk 2027ko ordenantza fiskalen hasierako onarpenari dagokionean. Udal zerbitzu publikoak mantendu eta hobetzeko "ahalegin fiskala" beharrezkotzat jo arren, gaia "modu globalean aztertu behar dela" uste dute aipatu alderditik. Alegia, "zerga-polika osoa eta udalen diru-sarreren bilakaera" hartu behar da kontuan PSE-EE-ren esanetan, baita, udal gobernu taldetik iragarritako tasa berriei dagokienean, "familiek eta herritarrek egiten duten ahalegin fiskala" ere.

Hala, Ondasun Higiezinen Gaineko Zergatik nahiz tasa turistiko berritik diru-sarrera gehiago jaso daitezkeenez, ahalegin fiskala orekatzearen aldekoa da PSE. "Udal-zerbitzuen erabiltzaileei zuzenean eragiten dieten igoerei eusteko gaitasuna ere egon behar dela" uste dute.

Horregatik, abstentziora jotzea erabaki du PSEk. Jarrera "arduratsua eta eraikitzailea" dela diote. "Zabalik utzi du ordenantza fiskal orekatuagoak, proportzionatuagoak eta sentikorragoak lortzeko lanean jarraitzeko aukera".

EAJ alde

EH Bilduk 2027. urterako proposaturiko ordenantza fiskalak babestu zituen EAJ-k. "Urteroko irizpideak berdinak dira", adierazi zuen udal talde horretako bozeramaile Xabier Otxoak. Tasa turistikoari dagokionean, "EAJ urte dezente doa hori eskatzen", gaineratu zuen.

Horrez gain, gobernu taldearen zenbait neurri foru arauetatik eratorritakoak izatea eta "begi onez ikustea" pozgarritzat jo zuen EAJ-ren bozeramaileak.



"Aitatxo" antzezlaneko protagonistetako bat da Alex Tello. Aitaren rola du sorkuntza lan horretan.

Seme-alaben galera, aiten ikuspegitik

"Komunitatetik heriotzaz" zikloaren baitan, "Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak" dokumentala proiektatuko dute urriaren 18an Sutegin. Ikus-entzunezko horretan oinarrituriko antzezlana ere sortu dute. Alex Tello herritarra da antzezleetako bat.

ARITZ LASARTE

Azken txanpan murgildua da, udaberritik tabu handienetakoa arrakalatzen diharduen "komunitatetik, heriotzaz" zikloa. Bere baitan, "Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak" iaz ekoitzitako dokumentala proiektatuko dute urriaren 18an Sutegin. "Seme-alaba baten galeraren dolua azaltzen du ikus-entzunezkoak, aitaren begiradatik. Seme-alabaren bat galdu duten lau aitaren testigantzen bidez, dokumentalak aiten sufrimendua eta dolu eskubidea plazaratzen ditu". Iaz Gasteizen estreinatu zuten. "Dokumentalak mugitu ditu barrenak. Biluztu dira protagonistak kameraren argi gorriaren aurrean. Eragin ditu malkoak eta bete ditu bihotzak. Harrera ezin hobea izan da", nabarmendu zuten sustatzaileek aitatxodokumentala.eus atariaren bidez. Herriz herri proiektatzen dabiltza ikus-entzunezkoa. Igandeko Sutegiko emanaldiaren ostean, filmaren sustatzaile Anakotz Lasarterekin solasaldia izango da.

"Asko mugiarazten du"

Lasarte, dokumental horretatik eratorritako "Aitatxo" antzezlanaren gidoilaria ere bada. Berak proposatuta, sorkuntza lana zuzendu zuen Telmo Iruretak. Unax Uralderekin batera, bertako antzezlea da Alex Tello, aitaren rolean. Antzezlana "benetako gertaera batean oinarrituta dago. Bi haur hil ziren familia baten istorioa jasotzen du. Aitak, hildako seme horrekin izandako elkarrizketen bidez, dolua, maitasuna eta bizitzarekin aurrera jarraitzeko indarra erakusten dizkigu. Dolua, onarpena, bizitzaren errealitatea. Bizitza datorren bezala onartzea". Tellok kontatu digunez, "dokumentaletik kanpo geratutako zenbait pasarte sartu dira antzezlanean". Honenbestez, antzezlana ez da ikus-entzunezkoaren erreplika. "Hildako semearen eta aitaren arteko elkarrekintza" ematen da bertan, aktore herrikidearen esanetan. Bien arteko espazio hori irudikatzen du antzezlanak. "Asko mugiarazten du", ziurtatu du Tellok oholtza gaineko sorkuntza lanari nahiz dokumentalari buruz ere. Sutegiko proiekzioaz esan digunez, "oso ondo dago, indartsua da, iristen da".

"NIRE PROIEKTUETAN OSO PRESENTE EGON DA BETI HERIOTZA"

Aktore gisa eginiko lanak maila pertsonalean mugiarazi ote duen galdetuta, Tellok hedabide honi azaldu dionez, bizidunak garen moduan, "urteak egin ahala guk ere baditugu gure hilak. Eramaten zaitu horretara, zure egunerokoan fisikoki ez dituzun horiekin harremantzera".

Usurbilen udaberriaz geroztik abian izan eta amaierara bidean den "komunitatetik heriotzaz" zikloa ertz askoko eta isilarazitako gai horretara hurbiltzeko lagungarria izan ote daitekeen galdetuta, baietz dio Tellok. Berari ere onuragarriak izan zaizkio esperientziok. Bere sorkuntza ibilbidean zehar, heriotzarena, presente, hurbil izandako gaia izan dela gogorarazi digu. "Heriotza jada landu dut antzerkian, "Zu Gabe" obrarekin landu nuen. "Animo" filmean lantzen dut, eta "Galerak" proiektuan ere heriotzaren gaia hor dago. Ez dakit ez ote den nire trilogia", azaldu digu irribarre artean, baina argi duena da, "nire proiektuetan oso presente egon da beti heriotza. Lan politenetan heriotzak protagonismo handia izan du".

"Komunitatetik, heriotzaz" zikloa

Urriak 18, igandea
18:00 "Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak" dokumentalaren proiekzioa Sutegin.

Azaroak 5, osteguna
18:00 "Heriotza eta kulturartekotasuna" solasaldia Sutegin.
Sarrera: gonbidapenak doan aurrez eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.
Bultzatzailea: Usurbil herri zaintzailea.
Laguntzaileak: Bidegin eta Iñurri elkarteak, Hil Arte Bizi egitasmoa eta Matia fundazioa.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943 498 917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529.

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Titulu soziosanitarioa eta erreferentziak dituen emakume bat naiz eta zaintza lanak, interna moduan zein orduka aritzeko lan baten bila nabil Usurbil edo inguruan. 618814363.

Adineko pertsonak zaintzeko prest, orduka nahiz lanaldi osoz. 618814363.

Gauez pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen neska bat naiz. Titulazioa eta 25 urteko esperientzia dauzkat. 609647728.

Plantxa-zerbitzua edo laguntzaile lanetan orduka aritzeko lan bila dabilen emakume bat naiz. 614349021.

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak. 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747 446 091.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

90 zm-ko ohe artikulatu bat koltxoiarekin eta besaulki edo butaka artikulatu motordunak dauzkagu salgai. 605280119.

Futbol partidak

Haranen

Urriak 17, larunbata

• 11:00 Gizonezko kadeteen 1. maila:
/Usurbil F.T.B
-Ikasberri C

• 15:45 Gizonezko jubenilen gorengo maila: Usurbil F.T.-Anaitasuna C.D. "B"

• 18:00 Gizonezko erregionalen 1. maila: Usurbil F.T. "B"-Ikasberri K.E. "B"

Urriak 18, igandea

• 10:00 Alebin nesken kopa: Usurbil F.T.-ZKE 2015 NA "A"

• 11:30 Mutilen infantil handiak: Usurbil F.T.-Mundaiz S.C.D.

• 17:00 Emakumezkoen Ohorezko Erregional maila: Usurbil F.T.-Urola K.E.

Haranetik kanpo

Urriak 17, larunbata

• 19:00 Gizonezkoen Gorengo Maila, Errenteriako Fanderian:
/Touring KE "B"
-Usurbil F.T.

• 19:15 Emakumezkoen Gorengo Maila, Donostiako Berion: Antigua Luberri-Usurbil FT B

Urriak 18, igandea

• 09:30 2. Urteko alebinen liga, Lasarteko Michelinen: Texas Lasartearra "A"-Usurbil F.T.

• 12:00 Emakumezko kadeteen 1. maila, Urnietan: Urnieta K.E.-Usurbil F.T.

• 13:15 Gizonezko kadeteen 1. Maila, Hernaniko Zubipen: Hernani "B"-Usurbil F.T.

• Mutilen infantil txikiak: Danena-Usurbil FT. Zehazteke.

Eskubaloi partidak

Oiardo kiroldegian

Urriak 17, larunbata

• 09:30 Infantil mutilak, lurraldekoa. Aurkaria: Zarautz.

• 11:00 Infantil neskak, lurraldekoa. Aurkaria: Ordizia.

• 12:30 Senior mutilak, 2. lurralde maila. Aurkaria: Elgoibar.

• 17:15 Kadete neskak, lurraldekoa. Aurkaria: Saieko.

• 19:30 Senior mutilak, Lehen Nazionala. Aurkaria: Ereintza.

Urriak 18, igandea

• 10:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga. Aurkaria: Bidasoa.

• 12:15 Kadete mutilak, Euskal Liga. Aurkaria: Bidasoa.

Oiardotik kanpo

Jubenil mutilak, lurraldekoa. Aurkaria: Leizaran

• 12:30 Jubenil neskak, lurraldekoa. Aurkaria: Eibar

Pilota partidak

Urriak 16, ostirala

• 18:30 Infantilak Gipuzkoako 2. Mailan banaka:
- Pagazpe (Barandiaran)
- Aizkorpe (Antia)

HILDAKOAK



Makari Rodriguez Moreno
Urriaren 9an hil zen,
66 urterekin.

KzGuneko ikastaroak

Urrian arratsez: 16:00-20:00.

• Urriak 19, 16:00-18:00 "BakQ ziurtagiria".

• Urriak 20-30, 16:00-18:00 "Google aplikazioak zure smartphonean".

Hiru lan deialdi Beterri-Buruntzan

Zuzendari, Ekintzailetzako eta Komunikazio zein Harremanetarako teknikari postuetarako plaza bana oposizio-lehiaketa askez eskuratzeko deialdiak eta haiei lotutako oinarriak plazaratu ditu Beterri-Buruntza mankomunitateak.

Informazio gehiago, beterriburuntza.eus atarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 16

SANTUENEA Bertso-afaria Ibai-Ondon

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Ane Labaka, Miren Artetxe.-Gai-jartzailea: Onintza Gartzia.
20:30 Ibai-Ondo elkartea.

IGANDEA 18

USURBIL "Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak" dokumentalaren proiekzioa

"Komunitatetik heriotzaz" zikloaren baitan.
18:00 Sutegin.

ASTEAZKENA 21

KALEZAR "Emakumea, gorputz-irudia eta kirola: presioetatik ongizatera"

Solasaldia, Naroa Mirallesen eskutik.
18:00 Emakumeon Etxean.

OSTEGUNA 22

USURBIL "Habitat. Ezkutatu diguten historia", erakusketa eta bisita gidatua

Beñi Agirreren eskutik. Lehenik Udarregiko DBHko ikasleak pasako dira eta ondoren, herritar guztiei zabalduko zaizkie ateak.
16:45 Potxoenean.



Igandean, arratsaldeko 18:00etan hasiko da 'Aitatxo' dokumentalaren proiekzioa.

"Aitatxo. Isiltasuneko ahotsak" dokumentala

Seme-alabaren bat galdu duten lau aitaren testigantzen bidez, dokumental honek aiten sufrimendua eta dolu eskubidea plazaratzen ditu. Film proiekzioaren ondoren, Anakotz Lasarte dokumentalaren gidoilari eta sustatzailearekin solasaldi baterako tartea irekiko da.

Urriak 18 igandea
- 18:00 Sutegin.
- Sarrerak: gonbidapenak aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala, "Komunitatetik heriotzaz" zikloaren baitan.
- Laguntzaileak: Bidegin, Iñurri, Hil Arte Bizi, Matia.

Bertso-afaria Santuenean

Santueneko auzo elkarteak antolatu du ostiral honetako bertso-afaria. Ibai-Ondo elkartean izango da, arratsaldeko 20:30etik aurrera. Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Miren Artetxe ariko dira bertsotan eta Onintza Gartzia gai-jartzaile moduan. Honako menua dastatu ahalko da, afarian zehar: txistorra, bakailaoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra eta intxaurrak, kafea, kopa. Txartelak aurrez eskuratu behar ziren, 40 eurotan, Esnaola janaridendan.

Bisita gidatuak

Urriak 24, larunbata
- 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldia.

Urriak 28, asteazkena
- 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Urriak 30, ostirala
- 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil.

Informazio gehiago eta erreserbak:
650usurbilbizi.eus

Afari solidarioa, urriaren 20an

Iaztik, Donostiako Kale Afari Solidarioak (KAS) ekimenarekin bat eginiko herritar taldea jardunean aritu da, laguntza bildu, ehunka otordu prestatu, Gipuzkoako hiriburura garraiatu eta kalean bizi diren hainbat pertsonei afariok helarazten. Urriaren 20rako iragarri dute hurrengo otordu solidarioa. Ekimenean parte hartu nahi dutenek 688 85 08 24 zenbakira deitu dezakete.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

TXAPELDUN
ARDANGELA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna Iurra 2, 943 49 88 83



* Promozioak 2026ko abenduaren 31ra arte balio du, gaur egun LABORAL Kutxa STa ez duten saltoki berrientzat. Android STrako eta ST birtualerako eskuragai eta Payclick zerbitzuarekin.

** Hileko fakturazioa 20.000 €-tik gorakoa bada, % 0,40ko deskontua aplikatuko da zenbateko horretatik gorako tartearen gainean. Enpresa-txartelaren bidez egindako hileko fakturazioa eta nazioarteko txartelaren bidez eragiketa ez-presentzialetan egindakoa hileko fakturazio osoaren % 10etik gorakoa bada, % 1,5eko tasa aplikatuko zaie eragiketa horiei guztiei. Kuotak saltokiko terminal (ST) baten mantentze-kostua hartzen du barne, eta terminal gehigarri bakoitzeko 5 €-ko komisioa kobratuko da.

LABORAL kutxa



Lodosako Pikillo eta Najerako piperra

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba



Piperra 3 eratan eska daiteke:

·Gordinik
·Erreak eta garbiak 400gr-ko poltsetan
·Izozteko 400 gr-ko poltsetan

Eskariak 2026/10/19 arte jasoko dira.

www.alkartasuna.eus

Alkartasuna Kooperatiban:
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com


Antolatzaileak:
Hainbat eragile ezberdinak:
Gurasoak, Udarregi, Noaua!
K.E. Zirimara,
Gaztelekua,
Orbeldi...
Usurbilgo Udala
noaua
HERRIA HERRITIK
BAIETZ!
BADATOR
Hezur lapur
GAU BELTZA
2026.10.31
Ipuina eskuragarri NOAUA!ko egoitzan eta SUTEGI liburutegian